



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2019ko ekaina · 353 alea

TOKIKOM



A TUTI PLAIN
**MAKETA
GRABATU BERRI**



PIL-PILEAN 353

2019ko ekaina

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan**
Francisco Javier Asensio
 - 6 **Begira** Erromeria eguna
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Bizikaleren moda desfilea
 - 18 **Erreportajea** A Tuti Plain
 - 24 **Kirola** Patinajea eta Pilota
 - 25 **Kultura** Abesbatzaren kontzertua eta San Andresko jaiak
 - 26 **Gure artistak** Saadia Nasir
 - 27 **Nondik nora** Beñat Catalan
 - 28 **Sakonean** Erreka bazterreko lorategia
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Aitor Madrid
Nik hau kontrolatzen dut
 - 16 **Gutunak** Marraskilo tour-en antolatzaile taldea *Marraskilo tour antolatzekeo laguntzaile bila*
Roman Garmendia
Herria mehoratze aldera
 - 16 **Hausnarketa** Gaztetxeko gunea
 - 17 **Zir(r)ika** P.G. *Gaztetxeko prozesua*
 - 17 **Puntua** Mauri Muro
Antonio Hildagoren oroimenez



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus
Zuzentzailea
Leire Ginea

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)
Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.
Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua:
SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Nik hau kontrolatzen dut



AITOR MADRID

Zenbat gauza egin daitezkeen mugikorrarekin. Egunerero begiak pega-pega eginda izaten ditut.

Bideojokoekin jolasten dut egunerero. Ikusgarriak dira grafikoak eta gainera nere lagunekin jolas dezaket. Orduak eta orduak. Aplikazio horiei esker lagun berriak egin izan ditut sarritan. Gauero jolasten dut ordu txikiak arte. Horregatik, goizeko klaseetan lo seko geratzen naiz. Edozein egunetan lagako dut; izan ere, nik hau kontrolatzen dut.

Whatsappa egun osoan erabiltzen dut. Lagunekin komunikatzeko mundiala da. Edozer gauza egiten ari naizela mezu bat jasotzean dena utzi eta erantzuten dut. Ordu txikietan ere whatsapppeatzen dut. Eeeez orain ez! Zerbitzutik kanpo badago ezin dut jasan! Edozein egunetan lagako dut; izan ere, nik hau kontrolatzen dut.

Telebistan eta aldizkarietan futbolari ospetsuak ikusi izan ditut apustu etxeetako iragarkietan. Lagunartean apustu txikiak egiten hasi ginen eta orain mugikorrean aplikazioa daukat. Inori ezer esan gabe apustuak egiten ditut egunerero! Martxa honetan laster daukadan diru guztia agortuko zait, kar kar kar. Edozein egunetan lagako dut; izan ere, nik hau kontrolatzen dut.

Sare sozialak erabiltzen ditut. Twitter, Facebook, Instagram... Horietan ere lagun berriak egiten ditut, baita informazio interesgarria jaso ere. Eta hoberena da zerbait jartzen dudanean gustuko duten ikustea, edozein unetan, gainera. Oharrak iragartzen dituen soinutxoaren zain egoten naiz. Pasada bat da. Edozein egunetan lagako dut; izan ere, nik hau kontrolatzen dut.

Musika! Nire talde eta bakarlarrien disko guztiak entzun ditzaket. Behin kaletik nindoala musika entzunaz ez nintzen ohartu zebrabidea igarotzen nengoenik eta auto gidari batek bronka bota zidan. Zer egingo diogu, ba! Edozein egunetan lagako dut; izan ere, nik hau kontrolatzen dut.

Aplikazio horiek mendekotasun-sortzaile itzelak dira. Denbora eta informazioa lapurtzen digute. Beraien helburu nagusia gu ondo ezagutzea da. Zer nahi dugu? Guk geuk aplikazioak kontrolatzea ala beraiek geu kontrolatzea?

**ZER NAHI DUGU? GUK
GEUK APLIKAZIOAK
KONTROLATZEA ALA
BERAIEK GEU
KONTROLATZEA?**

Francisco Javier Asensio

ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN ADITUA

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

Francisco Javier Asensio Txisko aritua eta aditua da energia berriztagarrietan. Eskolan ematen ditu Gipuzkoako Ingenieritza Eskolan (Eibarren) eta, GISEL Ikerkuntza Taldeko kide ere bada, Bilboko Ingenieritza Eskolan. Talde horretan, energia berriztagarriak integratzeko moduak ikertzen dituzte, besteak beste: dispositibo elektronikoak, mikrosareak, ibilgailu elektrikoak eta sare adimentsuak.

Zer dela-eta aukeratu duzu energia berriztagarrien ikerketa? Beti gustatu izan zait ingenieritza eta energia esparrua. Energiarena oso esparru garrantzitsua da, definitzen duelako herrialde baten garapena.

Zenbateraino energia berriztagarriek eman diezaioke herrialde bati autonomia energetiko handiagoa? Galdera polita da hori. Oraintxe ari gara hori bizitzen. Litioa da baterien oinarritzko elementua eta mundu-mailan existitzen den litioaren %85a Argentina, Txile eta Bolivian dago. Imanekin ere gauza bera gertatzen da eta Txina ari da meategi guztiak erosten. Beraz, energia berriztagarrien sektoreak ere monopoliorako arriskua nabarmena du.

Zer lan egiten duzue ikerkuntza-taldean? Adibidez, smart parking proiektua garatzen dihardugu Donostiako Udalarendako, Altza auzoan. Aparkaleku adimentsu bat, libre dauden aparkalekuak detektatuko dituena. Bestetik, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren barruan, lantzen dihardugu ioi-litiozko baterien modelo aurreratuak. Ibilgailu elektrikoen esparruan problema oso handia dago, bateriak degradatu egiten direlako. Guk probak egiten ditugu kamera klimatiko batzuetan jakiteko sistemak zela konportatzen diren egoera bakoitzean, gero modeloak garatzeko. Helburua da bateria horien biziraupena luzatzea.

Ematen du energia berriztagarrien sektorea asko ari dela hazten. Hala da? Bai. Espainian punta-

puntakoak izan gara, adibidez, eguzki-energiaren arloan. Gero, murrizketak zirela-eta, atzera xamar gelditu gara baina, tira, mundu-mailan asko ari da garatzen eta argi dago horixe dela etorkizuna. Txinan eta Europa iparraldean diru pila bat ari dira sartzen energia berriztagarriak garatzeko. Eskerrak hemen ere legedia aldatu duten eta berriz ari den errekuperatzen. Energia fotovoltaikoa sortzearen kuota bat ordaindu behar izan da eta orain, ostera, kontrakoa gertatzen da. Energia berriztagarrien arloko legedia oso aldakorra izaten da.

Zu ikusi izan zaitugu herrian auto elektrikoarekin. Bai, Twizy bat da, modelo komertzial bat. Guk ibilgailuak moldatzen ditugu eta gero erabiltzen ditugu frogak egiteko, ondoren metologia optimoak garatzeko.

Gaur egun, ze prezio du auto elektriko batek? Nik darabilkidanak 5.000 euro balio ditu aterik barik, ateekin 7.000 euro. Berrogeita hamar kilometroko autonomia dauka eta gehienez 50 km orduko abiadura har lezake. Hiri baten ibiltzeko balio du. Gero, auto arrunt baten itxurakoak, Renault Zoe bat adibidez, 30.000 euroren bueltan egongo dira. Nahiko garesti daude, baina prezioak jasten joango dira.

Datozen urteetan auto elektrikoek hazkunde handia izango dute? Ibilgailu elektrikoak salduko badira, ziurtatu behar dira kargatzeko lekuak, baina kontua da zer datorren lehenengo eta zer gero, eta zeinek sartzen duen diru hori. Iberdrola, Endesa, Repsol ari dira dirua sartzen. Gaur egun, estatuan kargatzeko 4.000 gune daude eta espero da 2021erako asko ugartzea. Azken batean, trantsizio garai bat ari gara bizitzen.

Pentsa liteke hemendik hamar urtera auto elektrikoak eta kargatzeko guneak ere izango ditugula herrian? Bai, jarri ahalko dira norbere garajeetan eta, agian, Erregetxea toki egokia izan daiteke kargatzeko gune bat jartzeko (barreak), ikusiko dugu. Hori bai, gobernua diru pila bat sartu beharko du kargatzeko guneen azpiegitura garatzeko.



Dantzarako giro berezia Ezozin

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Aurten, hainbat belaunaldi eta lurraldetako dantzariak batu dira Ezoziko Erromerixa Egunean: Urrats dantza-taldeko dantzariak (txikiak eta nagusiak), herriko eta bailarako beste herri batzuetatik etorritako dantzazaleak, Hariz Hariko dantzari baxenafartarrak eta Gathubi taldeko musikari iruindarrak. Goizean, dantza-ikuskizunak egon ziren eta, arratsaldean, erromeria. Biak izan ziren gozagarriak eta, beste behin, dantzarako giro ederra sortu zen Ezoziko plaza den dantzaleku zoragarri hortan. Eman dezala Ezoziko giro eta gozamen kolektibo horrek herrian euskal dantzen etorkizuna gidatzeko behar den indarra eta ilusia.







Ekainaren 10eko osoko bilkuran hartu zuten kargua udal ordezkariak.

Udal gobernu berria uztailean

Uztailearen 10ean egingo dute 2019-2023ko agintaldiko lehen osoko bilkura, orduan estreinatuko dira udalbatza osatuko duten 11 zinegotzietatik bostek; gainerakoak lehenagotik aritutakoak dirai

Uztailearen 10ean, eguaztenean, elkartuko da lehen aldiz datozen lau urteotako udalbatza, agintaldiko lehen osoko bilkura egiteko.

Esanguratsua izango da batzar hori; izan ere, datozen lau urteotan udalean ordezkari izango diren zinegotzi berriak lehen aldiz ariko dira langintza horretan. 11 zinegotzi ditu udalbatzak eta bost izango dira berriak.

Hain justu, honako hauek eseriko dira udaletxeko areto nagusiko mahaiaren bueltan: EH Bilduren izenean, Unai Larreategi (bozeramalea), Ana Rosa Maiztegi, Maite Quintanilla, Roke Akizu eta Jone Alberdi. EAJren izenean,

berriz, honakoak: Iker Aldazabal (alkatea eta bozeramalea), Veronica

Galarraga, Ramon Gallastegi eta Abel Olaizola. Eta PSE-EEren izenean, Patricia Borinaga (bozeramalea) eta Iñaki Rubio.

Karguen izendapena

Gainera, esan daiteke osoko bilkura berebean osatuko dutela Udal Gobernu berria. Izan ere, landuko dituzten puntuen artean, bata izango da gobernuaren batzarkideak izendatzea. Horrek esan nahi du EAJk eta PSE-EEK aurrez erabakiko dutela gobernuaren eraketa, alkateordeak eta bestelako karguak izendatuko dituzte.

EAJren alde

Udal Gobernuari dagokionez, uztailearen 10eko bilkurak erakutsiko duen erretratua eta bertan hartuko diren erabakiak joan den ekainaren 10etik eratorritakoa dira. Aurpegi ilunak nagusitu ziren udalbatza eratzeko orduko osokoan, PSE-EEko ordezkariak Iker Aldazabal jeltzalearen alde bozkatu zuten, eta bera izendatu zuten alkate. Beraz, EH Bildu gobernutik kanpo geratu da, eurek eskuratu arren boto gehien.

"Elkarrekin lan egiteko gaitasunari esker"

Udal hauteskundeen ondoren, PSE-EEtik eskertu egin nahi dugu 348 soraluzetarrek euren botoen bitartez eman diguten konfiantza, eta konpromisoa hartzen dugu guztien artean guztiendako izango den Soraluze eraikitzeko.

Datozen lau urteotan, Udal Gobernuan izango gara berriro ere, ideologia desberdina duten alderdien arteko akordioari esker (PSE-EE eta EAJ), gure arteko desadostasunak albo batera lagatzeko izandako gaitasunari esker, eta proiektuak adostu eta elkarrekin lan egiteko gaitasunari esker. Bertatik jarraituko dugu agenda soziala bultzatzen, azpiegitura publikoak hobetzen eta irisgarritasuna eta herritarren partaidetza sustatzen gure udalerrian.

"Aurreko legealdiaren jarraipena izango da"

IKER ALDABAL ALKATEA


Ekainaren 15ean Iker Aldazabal izendatu zuten 2019-2023 agintaldirako alkate.

Pozik?

Bai, beste lau urtez Soraluzeko alkate izatea da, behin baino gehiagotan esandako moduan, txikitatik dudan bokazioa hori gauzatzea. Aurreko legealdiaren jarraipena izango da. Kasu honetan, balorazio positiboa egiten dut, ze badirudi lau urte denbora asko dela, baina udala kudeatzeko motz geratzen da, batez ere, proiektu handiei dagokienean. Aurreko legealditik halako asko daude bideratuta, baina gauzatzeke.

Zeintzuk gauzatuko dira epe motz-ertainera begira?

Kiroldegia handitzea. Igerilekuko sabaia eta hezetasun-kengailua konpontzea. SAPAko urbanizazioari dagokionez, berriz, gutxi barru arkitektura enpresa batek hainbat



proposamen egingo ditu, eta proiektu hori ere errealitate izango da epe motzera. Pascual Churrucako orubean babes ofizialeko etxebizitzaren promozioa garatzeko negoziazioetan ari dira Jaurilaritzarekin. Hori garatzeak erraztasunak emango dizkigu Olaldeako plan berezia garatzeko. Dolmenen libilbidean ere buru-belarri ari dira indusketekin, bisita gidatuekin eta dugun ondarea balioan jartzeko bestelako lanekin. Ezoziko parkea gutxi barru zaharberrituko da eta

beste asmoetako bat da bidegorrian erositako lursailean ibai bazterreko parkea egitea, herritar guztiendako aisialdi-gunea egokitzeko, eta bide batez, gaur egungo egoerari ere buelta emateko.

Kanpainan hainbat proiektu iragarri zenituzten...

Lehenengo eta behin Udala Gobernu berria eratu beharko dugu, ondoren hauteskunde kanpainan mahai gaineratutako proiektuak adostu beharko ditugu, legealdirako plana eta horiek garatzeko estrategia zehaztuz. Hori guztia ondorengo hilabeteetan zehaztuko dugu. Helburua da horiek lau urteotan garatzea eta gauzatzea.

Beste zerbait nahi baduzu gaineratu...

Oso indarberrituta eta ilusionatuta nagoela. Eta izango dudan lan-talde berriarekin ere oso pozik nagoela. Esperientziaduna da, eta odol berria ekarriko dute. Alde horretatik, benetan oso pozik nago, ze nik karrotik tiratuko dut, baina atzean jenderik ez badut, ez naiz ezer.

"Herri modura erantzuteko beharra"

Zein da arrazoia gu apartatzeko? EH Bilduk galdera horixe egin zien EAJri eta PSE-EEri udalbatza eratzeko osoko bilkuran. Halaxe galdetu zien Unai Larreategi bozeramaleak beste bi alderdiak elkartu eta gobernua osatzeko "zilegitasun osoa" dutela adierazi ondoren.

Eta erantzunik jasotzen ez zuela ikusita berriro ere eskatu

zientzialpenak emateko euren alde bozkatu duten 900 herritar baino gehiagori, are gehiago kontuan hartuta, Soraluze "gainbeheran" dagoela eta egoerari herri modura erantzuteko "beharra" dagoela azpimarratuta.

"Gainbehera" hori berori azpimarratu zuen Ana Maiztegi zinegotzi bilkide berriak ere, honakoa adieraziz: "Urrun

geratzen dira batuketak soraluzetar askorendako. Soraluze atzoko eta herenegungo gainbehera berean dago".

"Kanpotik" etorrita

Izan ere, EH Bilduk, oro har, uste du EAJK eta PSE-EEK egin dutena "alderdien arteko kromo banaketa" dela eta "kanpotik etorritako erabaki politiko batek baldintzatuko" duela "gure herriaren etorkizuna".

"Niri gustatu egiten zait herri hau"

ITZIAR SAGASTAGOIA UDAL TEKNIKARIA

Itziar Sagastagoia (Bilbo, 1976) udaleko teknikaria da. Deustuko Unibertsitatetik Zuzenbide Ekonomikoan lizentziadunak funtzionario postua eskuratu berri du. Baina lehenagotik ere ezagutzen du Soraluze eta udala, birritan egon da-eta bertan lanean. **Udal idazkari izan zinen, ala?** 2010eko urtarriletik 2011ko abuztura arte eta 2015eko ekainetik 2018ko abuztura arte, Daniel Salazar udaleko idazkariaren ordez egon nintzen.

Gaur egun zein da zure zeregina? Udal txikia izatean denetik egiten dut, baina asko dira idazkari lanak, Danirekin; pertsonaleko ardurak ere baditut... Hartu ditut erretiratu diren langileen lan batzuk, eta baita beste ardura batzuk ere. **Atzera ere Soraluzeko Udalera etorri izanak, zelanbait, erakusten du hemen gustura zaudela, ala?**

Oso gustura egon naiz beti, oso ondo. Lana beti gustuko izan dut eta horretaz gain, hemengo giroa aparta da, bai udal barruan eta baita herrian ere. Gustatu egiten zait herri hau.

"HEMEN JENDEA APALA DA ETA BIZIPOZ HANDIA DU, LANEAN BETI TOKATU IZAN ZAIT JENDE ZINTZOA"



Itziar Sagastagoia.

Herria ezagutzen duzu, bada?

Bai. Idazkari lanpostuari esker, ezagutzen dut, proiektuen berri ere badut, bertako politikariekin eta hainbat eragilerekin izan dut harremana, eta oso ona izan da.


Zer duzu gustuko herritik?

Batez ere giroa. Etortzen zara eta zatarra dirudi, herria deprimituta dagoela, eraikinen egoera, kale estuak... baina gero konturatzen zara hemengo jendea apala dela, eta bizipoz handia duela. Beti tokatu izan zait jende zintzoa, denetik egongo da baina... Gainera, niretzat erreferente diren bi pertsona hemengoak dira. **Zeintzuk?**

Txipi Arizaga eta Mikel Santiago. Dira lagunak, maite ditut eta niretzat eredu dira. Eta kasualitatez hemengoak dira. Osterantzekoekin ere esperientzia ona daukat, Iker ere maite dut... Oro har, jende langilea aurkitu dut, laguntzeko prestutasun handikoa.

Igerilekuko sabaia konpontzen

Astelehenetik, uztailaren 1etik, itxita egongo da kiroldegiko igerilekua, bertako sabaia konpontzeko lanak hasiko dituzte-eta. Orion Reparacion Estructural enpresak egingo ditu lanok, 118.531,40 euroko aurrekontuarekin. Horrekin batera, igerilekuko hezetasun-kengailua zaharberrituko dute. Tarte Kooperatiba elkarteak egingo du hori, 49.795 euroan.



Igerilekua itxita.

Arrandegia goizez zabalik

Juan Mari Arrandegiak atzera ere goizez zabalduko du Kooperatiban daukan saltokia datorren astetik aurrera, uztailaren hasieratik, alegia. Hori bai, udako ordutegia aplikatzen hasi eta goizez bakarrik izango da zabalik arrandegia, bai Kooperatiban eta baita azokan daukan saltokian ere.



Agerreburuko tumuluan indusketa-lanak egiten diharduen lan-taldea.

Dolmenen ibilbidea ikastetxeetan ikasgai

Debegesa Garapen Agentziaren bitartez, datorren ikasturterako unitate didaktikoak prestatzen dabilta Galemys enpresakoak

Soraluzeko, Elgoibarko eta Bergarako ikastetxeetako ikasleei Dolmenen ibilbidea eta bertan egindako aurrikuntzak ezagutzera emateko unitate didaktikoak prestatzen ari dira. Galemys enpresa ari da zeregin

horretan, Debegesa Garapen Agentziaren enkarguz. "Ideia da irailen edo urrian iada eskoletan erabiltzea", horixe esplikatu du Galemyseko Eva Aiestaranek. LHko 6. maila eta DBHko 1. maila aukeratu dituzte horretarako,

ikusi dutelako kontzeptu horiek maila horietan lantzen direla.

Karakatetik Elosurainoko mendilerroan dira ekainaren hasieraz geroztik Aranzadi Zientzia Elkarteko adituak eta boluntario laguntzaileak indusketa-lanetan. Eta tokian bertan dira informazioa batzen Galemys enpresakoak ere. Indusketa lanei dagokienez, berriz, Agerreburuko (Elosu) tumuluan hezur pusketa mordoa aurkitu dituzte, baita zeramika pusketak ere. Horrekin batera, monumentuaren egitura azaleratzen dihardute.

Seinaleztapena eta babesa

Bestalde, Soraluzeko sarreran (Karakaten) eta Bergarakoan seinaleztapen bana ipiniko dute, Iker Aldazabal alkateak esandakoaren arabera: "dolmen guztiak seinaleztatuko dira, eta babes neurriak ipiniko dira haien inguruan. Indusketa-lanez, bisita gidatuez eta eskuorriez aparte, mikrositea ere lantzen dihardugu. Horiek dira aurtengo lanak. Iaz Diputaziotik eta Jaurilaritzatik lortutako laguntzei esker bultzada handia eman ahalko diogu proiektuari".

Hondakinen sailkapen egokia ziurtatzeko neurriak aplikatzen segituko du Udalak

Lanbideren dirulaguntzaren bitartez, Udalak Ingurumen-teknikaria izango du beste sei hilabetez. Hain justu, azken sei hilabetean lanpostu hori bete duen Jone Notario ondarrutarra bueltatuko da zeregin horretara.

Hori horrela, aurreko lanaldian ekindako bideari eutsiko dio Notariok, batik bat

hondakinen kudeaketan. Eta bide horretan, besteak beste, hondakinen sailkapena behar den moduan egiten dela ziurtatzeko, edukiontzietatik kanpo lagatzen diren zabor poltsak ikuskatzen segituko du, poltsa zeinek laga duen identifikatzeko eta haren jabeari abisu-gutuna bidaltzeko. Horrekin batera,

edukiontzi-sistema bera ere aztergai izango du, zerbitzuaren egokitasunari erreparatzeko. Gainera, konpost guneen egoera ere zainduko du.

Jasangarritasun energetikoa

Hondakinen kudeaketaz aparte, Ingurumen teknikariaren beste eginkizunetako bat izango da EAEko Jasangarritasun Energetikoaren lege berriak dioenari segika, udalerriko eraikin publikoak haren irizpideetara bideratzea.



Belarrak saltokiko langileak loreak txukuntzen, dendaren aurreko aldean.

Hutsik lagako dute, botatzeko dago-eta

Aurri edo hondamen espedientea abiarazi dute Santa Ana 2 zenbakiko etxearendako, beraz, etorkizunean bota egingo dute.

Datorren astetik ez da belar-dendarik izango Zubi Nagusian. Izan ere, Belarrak saltokiak erabiltzen duen etxea hondamen-egoeran deklaratzeko espedientea abiarazi du Udalak. Horrek esan

nahi du etorkizunean eraikin osoa botako dutela jabeek, baldin eta ez badute berau osorik Udalaren esku lagatzen Udalak berak bota dezan, Atxuri 21. zenbakiko etxearekin egin zuten moduan.

Gaur gaurkoz, bi jabe ditu eraikin horrek: teiltatupeko solairua eta azpikoa Soraluzeko Udalak berak erosi zizkion jabeari, 2011-2015 legealdian. Eta etxearen gainerako espazioak, hau da, belar-dendak okupatzen duen solairuak gehi sotoak jabetza pribatua dauka.

Egora larrian

Iker Aldazabal alkateak esplikatu duenez, 50 urtetik gorako etxeak derrigortuta daude EIT-a egitera (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa). Bada, arkitekto independente batek egindako txostenaren arabera, Santa Ana kaleko 2. zenbakiko eraikina egoera larrian dago. Gainera, alkateak gogora ekarri du Soraluzeko Egitamu Orokorraren arabera, etxe hori ordenantzaz kanpo dagoela.

Belarrak Santa Ana 22ra

Gauzak horrela, etxea hutsik laga behar dute, eta Belarrak denda Santa Ana kaleko 22. zenbakira lekualdatuko dute, lehenago burdindegia egon zen lokalera, "pena handiz" dendaren ugazabek azpimarratu dutenez.

2.545 esker on, Aspanogi egunean bizitako eta eskuratutakoarengatik

2.545 euro eman dizkiete soraluzetarrek Aspanogiri, Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteari, Aspanogi Egunean bitartez. Horregatik eta egun horretan bizitako elkartasun giroarengatik antolatzaileek "mila esker" helarazi nahi dituzte. Xehetasunei dagokienez, 800 euro batu zituzten txartelen bitartez, 275 euro, berriz, jendeak

musu-truk emanda; kamisetak eta bestelakoak salduta, 710 euro batu zituzten eta, azkenik, 30 metroko ogitarteko erraldoiari esker, 760 euro.

Bestalde, Zigor Gallastegik irabazi zuen otarra eta Aitziber Mayok tortilla lehiaketa. Intxixu, Bolia eta Arrano taberneak eta Mendizabal okindegiak antolatutako eguna da.



Aspanogiko herriko kideak.



'Sebas etxera' ekimenak antolatutako ekitaldia Elgoibarren. BARREN.EUS.

Sebas Etxaniz etxeratzeko eskaera

Sarek dei egin du zapatuan Elgoibarren Sebas Etxaniz presoak etxeratu dezatela eskatzeko egingo den agerraldian parte hartzera.

Sebas Etxanizek 75 urte ditu eta ia 18 urte daramatza gartzelan, ETako kide izateagatik. Jaiotzez elgoibartarra da eta Soraluzera sago ezkondua. Sarek jakinarazi duenez, "legeak ahalbidetzen du adin horretako presoak behin-behineko askatasunean kaleratzea", eta bigarren graduari dagoen arren, ukatu egin diote hirugarren graduari, asteburuetan kalera ateratzeko aukera emango liokeena. Epaileek "reizidentzia arriskua" aipatu dute baimenak ukatzeko arrazoi gisa eta Sarek salatu du "ia 76 urterekin, eta ETak biolentzia orain dela ia zortzi urte bukatuta", baimena ukatzeko argudio horrek ez duela zentzurik. Horrekin batera, "Sebasek uztailaren 15ean beteko ditu bere kondenaren hiru laurdenak eta hori legalki beste motibo bat gehiago da aske laga dezaten".


Sarek dei egin die soraluzetarrei, zapatuan, 13:00etan Elgoibarko Kalegoien plazan egingo den agerraldian parte har dezaten.

Sareren batzarra

Ekainaren 4an, Soraluzeko Sarek batzarra egin zuen eta datozen hilabeteetan alde burutuko dituen ekintzen berri eman zuen. Esaterako, Uztailean, Luhusotik Gernikara egingo den bizikleta-martxa eta irailaren 14an, Sareri kendutako diruaren gaineko sumarioa dela-eta, Joseba Azkarraga eta Agus Hernan deklaratzera deitu izana salatzeko Bilbon egingo den manifestazio "nazionala". Horrekin batera, Sarek jakinarazi du, irailean, Sabin Mendizabal preso soraluzetarra aske geldituko dela, Espainiako gartzeteetan lau urteko espetxealdia bete eta gero.

Erreferenduma helburu

Gure Eskuk fase berri bat hasi du eta udazkenetik aurrera herri-ekimena abiatuko du erabakitze eskubidea estatus juridiko-politiko berriaren legezko oinarri bilakatzeko helburuz. Hala adierazi zuten joan zen eguenean Plaza Berrian egin zuten aurkezpenean. Horrekin batera, Egizu posible izeneko kanpaina jarri dute martxan.



Gure Eskuren aurkezpena plazan.

Gaztetxeko gunea fase berrian

Ekainaren 27an Gaztetxeko prozesuaren baitako azken bilera egin zen eta etorkizunean gunea hori kudeatuko duen lan-taldea aukeratu zuten. Lan-taldearekin batera, baina, urtean zehar bi-hiru aldiz batuko den Batzarra ere eratu nahi dute, herriko taldeek eta norbanakoek parte hartzeko aukera izan dezaten.

Merkataritza modan

TESTUA ETA ARGAZKIAK: UBANE MADERA

Gainezka egon zen Plaza Zaharra Bizikale Merkatarri Llkarteak antolatutako moda-desfilea ikusteko. Euria egin arren, guardasolpean babestu eta bukatu arte, hantxe egon ziren guztiak ere, kieto! Bizikaletik, oro har, ekimenaren balorazio positiboa egin dute, eta eskerrak eman nahi dizkiete desfilea posible egin zuten guztiei: "Parte-hartzaile guztiei. Aazokakoak, zein desfilekoak, bai modeloei (Mesedeetako egoitzatik ere etorri ziren) eta baita parte hartu zuten ile-apaintzaileei (Ainhua, Marisa eta Mabel), Lilura estetika zentroari eta Kooperatibari, KLB6ri eta Fannyri ere, jantziak lagatzearren. Ez zen posible izango haien laguntasun barik". Hori bai, jakinarazi dute salmenta aldetik nahiko flojoa izan zela eguna eta datorren urtekoari begira, akaso egunez aldatuko dute azoka.





GUTUNAK

Marraskillo tour antolatzeako laguntzaile bila

MARRAZKILO TOUR-EN ANTOLATZAILE TALDEA

Kaixo lagunak! Aurten ere Iraileko 3. asteburuan Marraskillo Tour antolatzeako asmotan gabilta, baina oraingo honetan inoiz baino jende gutxiago gaude hau antolatzeako eta horregatik zuen laguntza behar dugu. Hori dela eta, nahiko genuke uztailaren 8an bilera bat egitea arratsaldeko 19:30etan, mendi taldeko bulegoan. Zuen laguntza izango dugulakoan, ordurarte.

Herria meioratze aldera

ROMAN GARMENDIA

Orain dela urte batzu bidali nizuen karta bat herriaren

irudia politagoa izan dadintzat, baina ez zenidaten publikatu. Nik espero dut oraingoan publikatzen ahalko didazuela. Alde batetik nik buruan neukan nire lehen proposamena imajinatzean gure iragan armeroa, gustatu edo ez hori egia da, eta egia da inportanteena, bistan dena. Eta nik amesten nuen museo armero batekin, kainoi fabrikaren oraindik geratzen den eraikuntzan. Botatzekotan omen daude, eta niretzat, horregatik karta hau, hanka sartze handia litzateke.

Beste proposamena ere oso errez konprenitzen da, Sagar Errekan, basureroa zegoen lekuan, azpitik igarotzen den tunela tapatu eta bertan formatuko litzateke lakua. Hori estudiatu egin beharko litzateke, lehen proposamen bezala, baina itxura guztien

arabera, egiteko moduko gauzak dira biak. Eskerrik asko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Gaztetxeko gunea

Gaztetxean bi urteko prozesua garatu dute etorkizunean gune horrek izan behar duena definitzeko eta prozesuak parte hartu duten herritar batzuen iritziak ekarri ditugu hona.



SARA PEÑALBA

"Nire ustez, prozesuak ekarri duen gauzarik aberasgarriena da ikustea dagoeneko hau ez dela Gaztetxe bat, ulertuta gazteek bakarrik kudeatu behar dutena. Jende askok parte hartu du eta gelditu da talde bat gogoan daukana gune honi beste forma bat emateko".




MAITE QUINTANILLA

"Hasieran oso espektatiba handiak izan genituen eta lortu dena da konturatzea gune honek herri ikuspegi batetik aukera asko ematen dituela lantzeko kultura, feminismoa... Hau hasiera bat da eta orain etorri behar luke eraldaketa bat itxura eta jardun aldetik".

ZIR(R)IKA

P.G. GAZTETXEKO PROZESUA



PUNTUA



MAURI MURO

Antonio Hildagoren oroimenez

Lehenengo eta behin, besarkada familia osoari, bereziki, Josefari. Antonio, lagun eta kamarada, zu ezagutzeko eta zurekin lan egiteko zortea izan dut. Lanean eta sinisten zenuen gauzeekin serioa eta arduratsua izan zinen. Maite zenuen Extremaduratik etorri zinen Josefarekin, eta hiru alabarekin familia ederra osatu zenuen. Josefarekin batera, jakin zenuen herri haxe zela zure helmuga eta, ondorioz, Extremadura ahaztu barik, bertako ohituren eta filosofiaren parte sentitu beharra zegoela. Gure arteko berriketaldietan, zuretzat, gauza on eta txar guztiak lur maite honetan gertatzen ziren. Zurea sentitzen zenuen. Zureak ere baziren enpresan genituen arazoak, eta indar handiz defendatu zenuen gaizki ordaindutako lan-baldintzak hobetzeko borroka, baita askotan izaten genuen segurtasun falta egoerak salatzekoa ere. Borroka horretan lehen lerroan egoten zinen. Azkenean, ez genuen zorte larregirik izan, baina askori geratu zitzaigun ahalegina egitearen harrotasuna.

Antonio, kamarada. Beste behin diotsut horrenbeste maite dugun gure herri honetan, bai lantokian zein kanpoan aurkitu izan dudana pertsona onenatarikoa izan zinela. Eta badakit Josefarendako -zela zaindu zenuen, lagun- eta zure alabendako, onena izan zinela.



SANDRA MUGERZA

"Aldaketa nagusia da apurto egin dela Gaztetxe izenarekin lotzen genuena. Ya ez dut horrenbeste lotzen gazteekin, gehiago ikusten dut belaunaldi ezberdinetako jendeak parte hartzeko gunez. Etorkizunerako garrantzitsuen da ilusioa eta gogoia".



IKERNE LASKURAIN

"Nire ustez behintzat lortu da jendea juntatzea zeozer egiteko, lokal honek daukan simbolismo eta garrantziak motibatuta. Gogo hori igarri dut nik prozesuan zehar eta niri gustatuko litzaidake etorkizunean lokal hau martxan eta bizirik ikustea".



A Tuti Plain, zuzenekorako prest

A Tuti Plain taldeak buru-belarri dihardu bere lehen maketa izango dena prestatzen. Bost kantu izango ditu eta uda aurretik kaleratu nahi dute.
Testua: **Egoitz Unamuno.**
Argazkiak: **Fernan Oregi.**

Legarren duten entsegu lokalean jarri dugu hitzordua A Tuti Plain taldeko lau musikariek, domeka iluntzeko zazpiretan, arratsaldeko entsegua amaitu ostean. Heldu garenerako (minutu batzuetako atzerapenarekin), Legarreko plazatxoan daude zain lurak: Ina, Gotzon, Jondar eta Joseba. Barrez-barrez daude. Ematen du gogotsu daudela taldearen berri emateko.

Grabadora martxan jarri eta berrogeita bost bat minutuz jardun dute berbetan. Ahotan izan dituzte honakoak: taldearen ibilbidea, osatu dituzten kantuak, musika influentziak, maketa grabatzeko prozesua, Soraluzen dagoen musika-lokalen gabezia... Elkarrizketaren erdian, Legarreko jaietako kide bat agertu da, galdezka, irailean Legarreko jaietan joko ote luketen diru-sari eta jatordu truk. Musikariek baietz erantzun diote, berehala. Bistan da irrikaz daudela hilabeteotan maketa prestatzeko egin duten lana jendaurrean erakusteko.

Ondorengo lerrootan jaso dugu A Tuti Plaineakoek kontatu digutenaren zati bat. Elkarrizketa osoa Plaentxia.eus-en argitaratuko dugu, audio formatuan.

Joseba Mendizabal (gitarra)
Jondar Plata (bajua), eta Gotzon
Elizburuk (bateria) eta Ina
Peñalva (Ahotsa eta gitarra)



Dabadabako kontzertua.

"ARGI IZPI BAT ILUNTASUNEAN KONTZEPTUA PRESENTE DAGO KANTU GUZTIETAN"



Dabadabako kontzertuaren kronika

KOLDO ETXANIZ TALDEKIDE OHIA

Kontzertua itzela izan zen. Joseba eta Ina gitarrekin espektakulua ematen, Jondar bajuan lasai baina aktitudearekin, Gotzon gogoz eta gogor baterian, igual, momenturen baten, gogorregi. Baina konjuntuan kristoneko kontzertua izan zen; tema gogorrak, baladaren bat, bertsioren bat edo beste publikoarekin konektatzeko. Hasiara baten, jende gutxi geunden, baina pixkanaka-pixkanaka, jendea hurbiltzen joan zen, aretoa ia guztiz bete arte. Ikusten zen jendea oso gustura zegoela. Espero dut hurrengoak ere halakoxe kontzertazoak izatea eta ni bertan izango naiz gozatzeko.

Bost kantu

Maketan bost kantu sartu dituzte. "Ez dira kanturik onenak, salgarrienak... Dirira bost kantu. Adibidez, Zauriak izeneko kantuak berba egiten du isildutako jende eta herri txikiei buruz. Beste kantu batzuk pertsonalagoak dira. Letrak nahiko kritikoak dira, negatiboak edo pesimistak, baina badute puntu positibo bat: *argi izpi bat iluntasunean* kontzeptua presente dago kantu guztietan. *Pug kantua* ere pesimista da, baina badu *argi puntu hori* eta zera dio, mundua alda litekeela, indarrez eta

gogoz, egin daitekeela: "Hainbat aukera mundua aldatzeko, gure fedea gestionatzen ikasteko".

Letra gehienak Inak idazten ditu, baina gainerakoek ere parte hartzen dute. Normalean, hasieran musika sortzen dute eta letra gerora joaten da indarra hartzen. "Letrak dira bakoitzak bere erara interpretatzeko modukoak. Ez da erraza kantu batek zer esan nahi duen esatea. Koadro inpresionista batek zer esan nahi duen esatea modukoa da".

Crossover estiloa eta influentziak

A Tutik lantzen duen estiloa definitzeko eskatuta, *crossoverra* aipatu dute erdi txantxetan, "estilo bat baino gehiago nahasten ditugulako". Batez ere, *rocka* da nagusi, baina ageri dira *popa*, *rapa*, *funkya* ere. "Ahalegintzen gara kanona apurtzen. Esaterako, *Zauriak* kantuak bi minutu eta erdi inguru dauzka eta hiru parte oso diferente: hasten da *power pop*arekin, jarraitzen du *funky*arekin eta amaitzen da *riff* metalero batekin. Inkuso, konposatu genuen kantu bat jo ezin genuena *Bossa-metal* (barreak)".

Influentziaz galdetuta, taldeko gazteenek aitortu dute bertako erreferente gutxi dituztela. Josebaren esanetan, Berri Txarrak da euskarazko talde erreferente bakarrenetakoa, eta gainerakoak estatukoak edo nazioartekoak dira: Morgan, Los Cigarros. Hala ere, Gotzonen bitartez 90. hamarkadako euskal talde askoren musika ezagutu dute: BAP!!, Kashbad... eta gaur eguneko batzuen ere bai:

Lisabö, Willis Drummond, Kuraia, Sexy Sexers... Transmisio horren garrantzia azpimarratu dute denek.

Influentziez galdetuta, taldeko gazteenek aitortu dute bertako erreferente gutxi dituztela. Josebaren esanetan, Berri Txarrak da euskarazko talde erreferente bakarrenetakoa, eta gainerakoak estatukoak edo internazionalak dira: Morgan, Los Cigarros. Hala ere, Gotzonen bitartez 90. hamarkadako euskal talde askoren musika ezagutu dute: BAP!!, Kashbad... eta gaur eguneko batzuen ere bai: Lisabö, Willis Drummond, Kuraia, Sexy Sexers... Transmisio horren garrantzia azpimarratu dute denek. Gotzonen esanetan, “gaur egun, gazte bati gertuago gelditzen zaio La Polla edo Kortatu, Negu Gorriak edo Dut baino”.

Entseatzera Eibarrera

Jondarrek hartu du hitza. “Denok herrikoak izanda, gustura entseatzeko genuke herrian, baina Ezozki Bideko lokalak dauden moduan egonda, han ezin da jasan eta azkenean joan egin gara. Lokalen egoera penagarria da. Ez da sormenerako leku duin bat. Instalazio elektrikoa zaharra, tetxua jausten, hezetasuna %200, segurtasun falta”.

Legarren egoera bestelakoa da. Udalak musikariek entseatzeko lokal egokiak prestatu ditu eta musikarien elkartearen esku laga du kudeaketa. Denek uste dute Soraluzen ere musikariak batu eta Udalaren inplikazioa eta babes handituko balitz, asko lagunduko lukeela musika mugimendua indartzen.

Musika taldeak herrian (2000-2019)

Azken hogeitun urtetan herrian sortu diren edo soraluzetarren batek parte hartu duen musika taldeen zerrenda zirriborroa da ondorengoa, herriko musikari batzuen laguntzaz osatu duguna. Erakusten du herrian izan den musika mugimendua zein aberatsa izan den.

Punka

Kalaña
Mingaina Explosion
Punktapie
Junzai Txetxera
Ke os jodan
Wilmurroide
Atraku
Katamixarra
Clavo Oxidado
Kaosarenasoak

Gaby
Inefable
Koello 104
Desprezio
Nakrotikos

Popa

Mantra
Añubeko troba
Silvio eta Rodriguez
Zirriborro

Rocka

Revel Phone
40.000 Watio
Oso Basatis
Matxura
Dejabu
A Tuti Plain
Iragan
Garraxi
Enders

Psikodelia hongal
Tetazo
Darling Shoes
Roy Veloces

Bluesa

ZZ Blues Band
The Crazy Wheels Band

Folka

Xero Xiette
Ventos de Saudade
Dirty hold and the fisherman

DJak

DJ Gordi
DJ Orlando
DJ Papi
DJ Purito
DJ Apa a.k.a Dinnamickal
DJ Urok
Dj Asi
DJ Ion Ordax
DJ Compota

Non desagertu da eszena?

GOTZON ELIZBURU

2003-2004. urteen bueltan, memoriak huts egiten ez badit, herrian musika-taldeek entseatu ahal izateko lokalen aldeko borroka piztu zen. Hori lortzeko, urte batzuetan RK Zulo jaialdia antolatu zen. Besteak beste, gogoan ditut Kalaña taldekoak, kalean kontzertuak jo eta zarata ateratzen lokalak eskatzeko. Borroka hari esker eskuratu ziren, egun oraindik erabiltzen diren Ezosi bideko lokalak.

Urtebete geroago-edo sortu genuen lau lagunek Junzai Txetxera taldea. Entseatzeko toki bila, guk ere jada han zeuden taldeengana jo genuen. RK Zulo jaialdiak jarraitu zuen beste urte batzuetan. Nerabezaroan denboraren kontzepzio laburra izaten dugu eta 2006an-edo, bete genuen guretzat ametsa zena, jaien bezperan RK Zulo jaialdian jotzea, gure kantu propioekin. Gure kantuak... Ia ez ginelako kapaz bertsoiak jotzeko ere.

Uste dut lokalak eskuratzea sekulako mugarrria izan zela. Musika-talde berrien eztanda gertatu zen. Jendeak bide bat ikusten zuen musika jotzen hasteko, gehiegi jakin gabe ere. Han zegoen saltsak harreman berriak sortu edo indartzen zituen, bide emanek talde edo kolaborazio berriei. Gainera, Gaztetxea kontzertuak emateko plataforma zen. Zenbat aldiz ez ote dugu jo bertan!

Talde gehienak rock eta punk estilokoak izan ziren. Noski, denak ez ziren hazi



RK Zuloko kontzertua, 2004an. ARTXIBOA.

Ezosi bideko lokaletan. Bestalde, aipatzekoa iruditzen zait neskaz osatutako taldeak ere bat baino gehiago izan zirela. Gogoan dut Klavo Oxidado taldeak, oso bitarteko gutxirekin, hiru disko argitaratzeaz gain, zer nolako fenomeno eragin zuen inguruko herri batzuetan.

Zikloek ordea, euren goraldi eta beheraldiak izaten dituzte eta hura iragan zen. Hala ere, azpimarratzeko moduko salbuespena da musika elektronikoarena, Gune Musiken bueltan sortu den tribua-eta.

Dena den, oro har, gaur ez dago duela 15 urteko ezandarik. Arrazoietakoa bat izan daiteke rock musikaren beheraldia (ez dago modan). Baina badira aipatu nahiko

BETE GENUEN GURE
AMETSA, JAIEN
BEZPERAN RK ZULO
JAIALDIAN JOTZEA..

nituzkeen beste elementu batzuk ere:

1. Zer gertatzen da musika-eskolan instrumentuak ikasten dituzten dozenaka ikasleekin? Zergatik ez dira hortik talde gehiago sortzen, ondo pasatzeko edo norbere sormena plazaratzeko? Irakasleek ahalegina egiten dute konboen bidez taldeko esperientzia horiek sustatzeko, baina nabarmena da eten bat gertatu dela hor.

2. Ba al dago behar besteko azpiegiturarik kultura-sorkuntza hori sustatzeko? Zergatik ez dira Ezosi bideko lokalak aukera bat gazte horientzat? Nahi duenak eman dezala buelta bat bertatik eta atera ditzala konklusioak.

Amaitzeko, Arantza Santestebani entzun diodan erreflexio bat: "Ezjakintasuna ere izan daiteke gauzak sortzeko modu bat. Beldurrik gabe, martziano izan. Herri bizi batean ezinbestekoa dugu kultura-sorkuntza eta adierazpideei ere bide ematea".

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko tritxoak
Soufflés

Tel.: 943 75 10 02



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zuri-gentako hortz idekia, punta puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad Cam sistema berritasku erabiltzen dugu.

Elizburu, 3. behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe@lilymail.com

Ordutegia:
Asteleheneratik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



Jatorren plazerrak, berritasak bertara

Batzoki

eguneko menua
asteburuetan
karta eta erretako

opartarrikoak eta
harbortzietako
entzango bereziak

benitoa eta
lupin arriko
barriak

Erretakoak 943 75 20 35



IZKUGUIRRE
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erretormak • Era gutxietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 299



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten dira
- Enkarguak hartzen dira
- Soratzeko baseenitako produktuek
- Etxeko tritxoak eta txistorak

Etxaburua 5
Telefonoa: 943 75 23 75



Fanny Mertzzeria

Arropak konpontzen ditugu
Santa Ana 22, behea • 688 81 53 92



BOLIA
TABERNA

Pirxoak, arinak,
kombinatuak
Gazte-giroko festa



KM design

Kira Muntatzen

943 76 09 85

karuntxokak@ymhoo.es
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 3
BERGARA

- Diseinueta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-arnatuak
- Logelak
- Zonak
- Aleak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Javier Alamo
Mediku Odontologiko
K.Z. 49.001.504

Katja Guñe
Odontologoa
K.Z. 49.001.549

Itxurik gabeko anestesiaz,
odontologia onak,
gratia trinko eta mugikorra,
odontopediatria, ortodontia,
implanteak, estetikak...

Erretako 1 - Tel.: 943 75 10 13



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

Arroz tritxoak
Etxera eramaten dituzte
Enkarguak hartzen dituzte

IBORRATZ PLAZA • 943 75 24 48



ARRANO
taberna

Etxari eta gazte
etxeako girokoak

Etxaburua 6
Telefonoa 943 75 24 09



TXURRUKA
JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



MABEL
ILUPAINDEGIA

- Berrantzeko keratina tratamendua
- Depilazioa
- Be-sustrairik gabeko permanentea
- Makilajea
- Manikura esklusibokorra
- Solariuma

Erretako 1
Tel.: 943 75 14 09



KLB6

Kaleburua 6
943 67 71 26

Multzo-erretakoak
moduluetan

Facebook: KLB6

Pepa Jimena
ORLEANS
MATEO BOOTER
K. Z. 49.001.504

ISOLID
BUNICO
VERO MODA



Euskalzaletasunaren alde:



Patinajeak gero eta zale gehiago

2019-2020 ikasturteko ikastaroetan 60 neska-mutiko aurrematrikulatu dira patinajean eta hockeyan jarduteko

Marras Irristaketa Elkartek patinajea eta hockeya praktikatzeko ikastaroak antolatzen segituko du irailetik aurrera.

50 bat neska-mutiko eta 14 heldu ibili dira aurten.

Dagoeneko, lau talde sortu dituzte: hasierako taldea eta benjaminak, alebinak eta senior mailakoak.

Gainera, datorren ikasturterako 60 neska-mutiko aurrematrikulatu dira dagoneko. Helduendako

izen-ematea, berriz, irailean zabalduko dute.

Eta patinaje zein hockey ikastaroen ordutegiak datozen asteotan jakinaraziko dituzte, kiroldegiarekin eta gurasoekin batzarrak egin ostean.

Txapelketetan parte hartzera

Bestalde, entrenatzeaz eta kirol-jarduera hori praktikatzeaz aparte, elkartearen nahia da datorren urtean txapelketetan lehiatzeko herriko taldea sortzea.

Atxotegik eta Iruretak etxera ekarri dute Debarroko eskuz binakako txapela



Soraluzeko Pilota Elkarteko Aitor Atxotegik eta Iñigo Iruretak irabazi dute Debarroko Eskuz Binakako Txapelketa. Atxotegi,

gainera, jokalaria onena izendatu zuten. Txapel horrekin zazpi txapel irabazi ditu Atxotegik, eta sei eskuratu ditu taldeak.

Bertan da Iñaki Ruiz lasterketa

Uztailaren 14an, domekan, jokatu da Iñaki Ruiz Mendi Lasterketaren VIII. edizioa. Beraz, zabalik da bertan izena emateko epea, kirolprobak webgunearen bitartez edo egunean bertan, lasterketa hasi aurretik, 08:30ean San Andresko frontoian.

21 kilometroko lasterketa prestatu dute Soraluze, Mugituz! topaguneko kideek. 10:00etan abiatuko dira lasterkariak San Andres auzotik, eta bertan izango da helmuga.

Iaz 80 bat korrikalarik parte hartu zuen, eta 1:42ko denbora egin zuten helmugaratu ziren lehenek. Ibilbideko aldapez aparte, eguraldiak baldintza lezakeen lasterketa da.

Marraskilo Tour egiteko laguntza

Irailaren hirugarren asteburuan Marraskilo Tour egiteko laguntza eskatu dute mendi-taldekoek, ekimenaren antolatzaileek. Esplicitzen dutenez, oraingo honetan "inoiz baino jende gutxiago" dago antolaketa-lanetan jarduteko eta horregatik erabaki dute laguntza eskatzea animatzen diren guztiei.

Laguntzeko prest daudenekin batzarra egingo dute uztailaren 8an, 19:30ean mendi-taldearen bulegoan. Beraz, jendearen laguntza jasotzea espero dute. XIII. edizioa izango du aurten Marraskilo Tourrak, iaz ehundik gora mendizalek parte hartu zuten.



Abesbatzako kideak antzokian entsegua egiten.

Zaharrean egingo duten kontzertua. 30 bat lagun izango dira taula gainean, 13:00etan hasita, Aitor Garitano Agirreolea zuzendari bergararraren batutapean.

Urtarrilaz geroztik dihardute entsegutan buru-belarri. Izan ere, abesbatzakoekin batera, Bergararik errefortzu modura etorriko diren musikari profesionalen osatuko dute biharko kontzertua, *pop-rock* erritmodun kantu ezagun askoak interpretatuko ditu-eta Ezoziko Ama Abesbatzak.

Rock erritmoa eta abesbatza uztartuta

Bihar, ekainaren 29an, kontzertua eskainiko du Ezoziko Ama Abesbatzak, besteak beste, *rock* estiloko kantu ezagunak interpretatuz

"Ikusiko dute kontzertu zeharo desberdina; ze lotzen dugu musika korala musika estilo konkretu batekin, eta ikusiko dute musika modernoarekin koruak ere funtzionatzen duela. Beraz, gonbidatu nahi ditugu

gazteak, nagusiak eta herritar guztiak. Hurreratu daitezela, gurekin batera kontzertuaz gozatzera".

Berba horiekin iragarri du Abel Olaizolak, abesbatzako kideak, bihar, zapatua, Plaza

Egitaraua

1. zatia

- You raise me up (R. Emerson)
- Heal the World (M. Jackson)
- Itsasoa Gara (Ken Zazpi)
- Bohemian Rhapsody (Queen)
- Aquarius - Let the sunshine (G. MacDermot)
- Haizea (Ken Zazpi)
- Viva la vida (Coldplay)
- Hallelujah (L. Cohen)

2. zatia

- Roquiem (Paul Barker)

Uztailaren 13tik 15era ospatuko dira San Andresko jaiak

Uztailaren 13tik 15era bitartean ospatuko dituzte aurtengo jaiak San Andresen. Azken urteotan ohikoa den moduan, auzoko ganadu eta produktuekin osatutako periarekin hasiko dute egitaraua. Aurten, gainera, periak irauten duen bitartean astoak tiratutako gurdia jarriko dute umeendako. Arratsaldean,

lehen aldiz, puzgarriak jarriko dituzte umeendako. Gaueko erromeria alaitzeko berriz, Mirari, Aintzane eta Lutxurdiok osatutako trikiti-taldea etorriko da, dantzarako doinuak joko dituen, goizaldera arte.

Gainerakoan, urtero moduan, kirola, bertsolaritza, musika eta gastronomia eskaintza bikaina izango da hiru egunetan zehar.



San Andresko jaietan, iaz.

Diseinu bakarreko joskintza-lanak: SN




Saadia Nasir, (Faisalabad, Pakistan, 1972), Soraluzen bizi da 2013tik. Jantzigintza du ogibide, SN markarekin. Denetik egiten du enkarguz, Pakistango telekin: soinekoak, blusak, gonak... guztiak ere diseinu bakarrek. "Umetatik brodatzen dut. Gero, batxilergoan lau urtez landu nuen joskintza, Home economics ikasgaiaren barruan. Moda eta diseinu ikasketak ere egin nituen".

Hegazkin-laguntzailea

17 urterekin, Saadia jostuna zen, eta erakusketa handietan ere parte hartzen zuen. Gutxira, aldatu egin zuen ogibidea. "Irakasle izan nintzen ia hiru urtez, eta gero hegazkineko-laguntzaile 15 bat urtez (azafata), Pakistan International Airlinesen". Pakistango presidente Pervez Musharrafen lan-taldeko kide izatera ere iritsi zen, beste 15 bat profesionalekin batera "bakarrik berarendako egiten genuen lan hegazkinean.

Mundu osoan ibili izan gara". Pakistango presidentek kargua utzi (2008) eta gutxira, Nasirtarrek Pakistandik alde egin behar izan zuten, segurtasun arazoak medio. Tristura handiz ekin zioten bizitza berriari Soraluzen, baina Maite Gorostidiri eta haren alaba Oihanari esker hasi zen Saadia jostun eta 2015eko Gaztañerre azokan hasi zen enkarguak hartzen. "Bizitza berria dut, eta horri eutsi nahi diot. Egunean 6-8 ordu ematen dut josten, batzuetan baita gauerdira arte ere. Gutxi irabazten dut, baina oso pozik nago. Soraluzetarrei eskerrak eman nahiko nizkieke konfiantzarengatik, bihotz-bihotzez. Etorkizunean, denda ipini nahi nuke bertan, Soraluzen bizitzen segitu nahi dugulako, eta telak saldu eta joskintza zein estetika zerbitzuak eskaini nahiko nituzke, ze estetika eta ile-apaintzaile ikasketak egin berri ditut hemen".



1. Saadia eta Nayyar (ama) ekaineko azokan.
2. Etxean, Pakistango telak eta egiten dituen poltsak erakusten.
3. Oihana, Amaia, Saadia eta Maite 2015eko Gaztañerren .

Harremanetarako

688 61 31 71

688 61 37 23

Facebook: Tejidos y creaciones Saadia

Beñat Catalan

SORALUZETIK EIBARRERA



Beñat Catalan (Soraluze, 1990) Eibarren bizi da, Amañan, bikotekidearekin duela urte eta erdi. Aita izan berri da, abenduaren 31n jaio zen Xare neskatila. Bizitoki berrira ohitzen dabilela aitortu du.

Eibarren ala Amañan bizi zara?

Amañan bizi naiz. Eibarrera jaisteko denbora behar izaten dugu baita bertatik ere.

Zela moldatu zara bizitoki berrira?

Horretan nabil. Oso desberdina da kalera jaistea Eibarren ala Soraluzen. Soraluzen dena dago bertan, hemen ez. Egia esan, baina, umearekin ere zaila da horretarako denbora hartzea.

Hori entzunda, ez dago modurik bikotea Soraluzera etortzera konbentzitzeko?

Barre egin du hori entzunda. Bera hemen ohituta dago, eta nik hura faltan igartzen dut. Gainera, berak amama hemen dauka, eta horrek pisu handia

du. Loturarik ez bageneuka, errazagoa litzateke.

Sarri antzean zatoz Soraluzera...

Sarri edo. Soran jarraitzen dut, pilotan jokatzera ere joaten naiz eta baita gurasoak ikustera ere.

Bentajaren bat izango du, baina, Eibarren bizitzeak...

Erosoagoa da. Adibidez, lasaitasuna errazago aurkitzen da kalera jaitsiz gero. Izan ere, Plazentzian irten eta berehala elkartzen zara norbaitekin, errazagoa da liatzea. Soraluzen lasai egon nahi baduzu mendira zoaz ala jai daukazu.

Soraluzeri eusten ahaleginduko zarela dirudi...

Beti saiatuko naiz loturari eusten. Herriz aldatu arren, ondoko herria da, ohiturak aldatzea besterik ez da. Egia esan, herri aldaketak ez du eragin deskalabru handiegirik nire bizimoduan, handiagoa eragin du umea edukitzeak. (Barre)

1.Beñat Catalan familiarekin.

2.Familiako hiru kideak etzanda.

3.Xare umea besoetan duela.

Erreka bazterreko lorategia

HERRIKO IKUSPEGI EDERRENETARIKOA DA IBAIAREN ONDOKOA


UBANE MADERA

ARGAZKIAK: UBANE MADERA

"Hementxe hasi zen dena, haren etxe parean. Kontxitak (1917-2000) ikusten zuen leihotik dena belarrez josita, eta pena ematen zion: hori lur pusketiori herri erdi-erdian eta horrela edukitzea... Eta bera hasi zen goizean goiz etortzen. Ingurua garbitu zuen lehenengo, gero baserriren batetik ekarri zizkioten gorostiak, landatu zituen haiek eta ondoren etorri zen beste dena".

Erreleboa Elixak

Horrela hasi du Elix Labaienek (Soraluze, 1938) ibai bazterreko lorategia nola sortu zuen kontatzen. Hark buruz dakizki lorategiko landare eta arbolen nondik norako guztiak, ahizpa hil ondoren Elixak hartu zuen-eta haren lekukoa lorategiaren zaintzan, eta 13 bat urte darama horretan: "22-23 urte egin zituen Kontxitak. Ipini zuen dena poliki-poliki eta gero nik landare gehiago ipini nituen; bitartean, zegoena zaindu egin nuen. Erreka baztarrera noa; erreka baztarretik nator... hola ibiltzen zen bera eta ni ere bai. Kontxitak esaten zuen: "Ni hara joaten naizenean denbora joaten jata aidean!". Eta gero niri gauza bera pasatzen jatan. Gustatu egiten jaku halako lana-ta. Jende askok esaten



Elixa Labaien gorosti zuria erakusten.

zigun: *ze polita dagoen!* Estimaten zuen jendeak egiten zen lana, bai".

Denetik dauka lorategiak

Duda barik, ia 40 urteko zaintza bista-bistakoa du erreka bazterreko lorategiak, bereziki sasoi honetan erakusten duen edertasunarengatik.

Gainera, goitik begiratuta ikusten dena baino askoz ere aberatsagoa da. Baditu hiru gorosti, platanondoak, haritza, pagoa, palmondoa... "Hemen (paretaren kontra) ipini zituen

**GOROSTIAK, HARITZA,
PAGO, IBISCUSAK,
KALAK, HORTENTSIK,
ARROSAK... DAUDE
LORATEGIEN**

arrosa lakatzak batean eta bestean, eta denborarekin, denean. Bola itxurako zuhaixka horiek (Euonymusak) ere berak ipinitakoak dira. Kalak dira, berriz, beste horiek. Eta beste hauek (Aghapantusak) nik ekarritakoak dira. Urkia zelaitik patata txikiak ekarri nituen, eta gero ikusgarriak egin dira! Hortentsia adarrak ere neuk ipini nituen, paseo osoan daude koloreka tartekatuta, zuriak eta gorriak. Ni ibili nintzenez, ipintzen nituen baita tulipanak, narzisoak, lirioak, gladioloak ere... Hau, adibidez, kamelia bat da, arrosa gorriak izaten dituen. Nire urtebetetzean oparitu zidaten eta etxeko leihoan izan nuen, baina handiegi egin zenezan pentsatu nuen: erreka bazterrean ipiniko dut eta etxetik ikusiko dut! Eta hementxe dago; aurten ere lore gorri-gorritz beteta. Beste hori, berriz, da Mekolaldetik ekarritako lakatzetatik hazitakoa (Ibiscusa). Tailer oste batetik lakatzak hartu nituen, ipini nuen arramatxoa, eta pentsaizu zela dagoen! Gaztetze pareko biribilori ere lore urdinduna da (Ibiscusa). Eta han aurrekoak, berriz, (Txoko parekoak) arbolatxoak-eta, Lukik ipini zituen. Gorosti bi ipini berri ditu, haritza eta pagoa ere berak ipinitakoak dira eta baita inguruko loratxoak ere eta bera ere ibiltzen da zaintzen lorategi pusketatxoa".



Erreka bazterreko lorategia kiroldegitik ikusita.

Beti loran

Urte osoan loran dago ibai bazterreko lorategia: "Bata ez bada bestea", udaberrian, udan, udazkenean eta neguan, urtaro guztietan loratzen diren loreak daude-eta bertan.

Zaindu nahi eta ezin

Banan-banan aipatzen ditu Elix Labaienek landare eta lore guztiak, inguratzen dituzten belar txarretatik tiratu eta tiratu dabilen bitartean. "Ni etortzen nintzen aste batean hiru bider, hurrengoan behin, segun... Eneee, honek ere ze ebagitzeko premia... Hasiko nintzateke, eh! Baina ezin! Nik laga nion etortzeari 2013an, gizonarekin istripua izan nuenean. Istripu haren ondoren beste bat izan nuen, gero errehabilitazioa... Orduan laga nuen".

Eta orain, ba, zaintzen dutenek egiten dute ahal dutena, une honetan oso kurioso dago". Halaxe bukatu du kontakizuna Elixak, eta guztion gozamenerako labaiendar ahizpek laga duten lorategiari zubitik begira geratu gara.



Elix Labaien erreka bazterreko lorategian, Gaztetxe aldeko ikuspegia erakusten.



Elix Labaien erreka bazterrean landatutako hortentsiak erakusten

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Mikel Urrestarazu
Uztailaren 13an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxeko guztien partez.



Irati Unamuno Fernandez
Ekainaren 10ean, 10 urte. Zorionak etxeko guztien partez. Mundiala zara. Segi gure bizitzak alaitzen!



Lide Sudupe eta Paule Oñederra
Uztailaren 1ean, 9 urte eta ekainaren 25ean, 4 urte. Zorionak etxeko printzesei! Patxo haundi bana danon partez.



Unax
Ekainaren 24an, 6 urte. Zorionak! Markelen eta gurasoen partez.



Unax eta Aimar Igartua
Uztailaren 5ean, 7 urte. Zorionak! Muxu handi bat aitatxo eta amatxon partez.



Zaloa García
Ekainaren 24an, 11 urte. Zorionak eta muxu haundi bat, eder hori! Etxekuen partez.

JAIOBERRIAK



Idara Perez Del Campo
Maiatzaren 16an jaio zen.

HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Antonio Hidalgo Pozo
Ramiro Cortes Revuelta
Marcos Vicente Vaquerizo Perez

Jaiotakoak

Idara Perez Del Campo

OHARRAK

1979an jaiotako en kintada



Irailaren 28an, Txurrukan.

Prezioa: 60 euro.

Laboral Kutxa: ES86 3035 0004 92 0041060568.

Etxea alokatuko genuke

Etxea alokatuko genuke Soraluzen, gutxienez hiru logela eta egongela dituen, familia gara eta. Harremanetarako, deitu 631 48 03 77 telefonora (Nasir eta Saadia). Aldez aurretik, eskerrik asko!

Kontzertuak

Uztailak 19, barixakua.

- 19:30ean, Arranoan: Deus Ez.
- 20:30ean, Gaztelupen: Roy Velozes.

LAN-ESKAINTZA

Lan-eskaintza: banatzaile eta erakusketetan zaintzaile aritzeko

Herrian antolatzen diren erakusketak zaindu eta aldizkari zein bestelakoak buzoietan banatzeko pertsona baten bila dabil udala.

- Urteko lan-karga 300 ordukoa da, 24 ordu hilean, gutxi gorabehera.
- Beharrezkoa da euskara jakitea (B2 mailako gaitasuna).
- Lan ordutegia:
 - Erakusketak zaintzeko: astean zehar, 19:00-20:30 eta aapatuetan 12:00-13:30.
 - Banaketa-lanak egiteko: goiz zein arratsalde, aukeran.
- Ordukako lan-kontratua eskaintzen da, eta orduko 12 euroko lan-sari gordina.
- Interesdunekin lan-poltsa osatuko da.

TXURITXU GOZOTEGIA
 Astelohenetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30 Larunbatak: 08:30-13:00
 Igandeak: 08:30-14:30



Gosariak, oja, premia, pastelak, korbak...
 Etxera eramateko zerbitzua
 Tel: 943 75 24 43

SUMA
basolanak
 Mug: 635 71 34 08

baso garbiketarak eta entresakak
 zortzi laguneko taldea zure zerbitzura



Carpinteria MANU Aroztegia

Asteak: Egurak, Pinturak, Sukiak, Teknologia

Manuel Cifuentes
 Estazioa B. barrera - Mug: 636 05 81 25

Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgesak, ogitartekoak, rasiak, pizza, gosaria...

Etearguak egiten dira
 Tel: 943 75 17 88



Kontulan
 aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta aitargenak - Administrazioa lanak
 Trafikoa buruzkoa - Lan-arloko aholkularitza
 Enpresen kontabilitate-ideiak - Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. eak. 20570 Sorluze
 Tel: 943 75 17 82 / Fax: 943 75 01 82

Almar
 SOLARIZATZA

Ilargipaindegia
 Estetika
 Solorizama

Gabelluz 4, Arles - Tel: 943 75 25 23 - 682 21 24 84



MENDIZABAL
 okindegia
 Oja - Prentza - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
 08:00 - 13:00
 17:00 - 20:00
 Larunbatak eta igandeak
 08:30 - 13:15

Kalebarren 10
 Tel: 943 75 13 99



ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

arrunta
 dekorazioak
 industriala

Tel: 943 75 13 24 Mug: 652 77 70 30



AURREZTU ENERGIA

Berota ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontaneria
San Andres
 iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



Soraluzeko
Kooperatiba Elkarte
 1900ak rabilak

Arraindegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostiralera:
 08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
 Larunbatak: 09:30 - 11:00

Kalebarren 4
 Tel: 943 75 13 45



REIKI Maria Etxabe
 699 699 795

Energiak zure hitzek baino azenago eriten du berba beti



SAN ANDRESKO JAIXAK 2019

Soraluzen

Uztailak 12, **BARIXAKUA**

19:00

2019ko jaixen hasieria
MAKALA ALTZATZIA,
KANPAI JOTZIA,
Ondoren, elkartian **TXORIZO** probatzia

Uztailak 13, **ZAPATUA** baserritzar eta gaztien eguna

10.00 - 14.00 **III. AUZO FERIXIA**

Auzoko abere eta produktuen erakustaldia,
umeentzako taller desberdinak.

15:00

BAZKARIXA, elkartian bertan bertsolarixak eta trikilariak
afaltuta.

18:30

Asier eta Iñakin omenezko **XVIII. PELOTA PARTIDU**
FINALA.

21:00

Tartian, **UMIENTZAKO PUZGARRIXAK.**
Herri afaria: Bakallau tortilla, saheskia entsaladarekin,
postrea, kafea eta kopa 20 €

00:00

MIRARI, AINTZANE eta **LUTXURDIXOKIN** erromerixia.

Uztailak 14, **DOMEKIA** jai eguna

10:00

Iñaki Ruiz VIII **LASTERKETA**

12:30

Mezia.

Egun guztian zehar, **AITOR MENDILUZE** eta **HAGIN**
LABURU bertsolarixak eta **MENDOTZ** eta **BIZKA** trikilarixak.

13:00

Iñaki Ruiz karrerako **SARI BANAKETIA.**

13:10

Plentziko pelota eskolako lagunak eskutik **BENAKAKO PELOTA PARTIDUAK.**

14:30

Elkartian **BAZKARIXA,** trikilaria eta bertsolarixak animata.

18:00

SAN ANDRES IX. HARRIJASOTZE SARIXA,

Partehartzailak, honakoak:

GORKA ETXEBERRIA,

MATEO COLOMA,

JON GISASOLA,

ARITZ URTETA.

Garaikurrak **GOGORTUZ FISIOTERAPIAREN** eskutik

Ondoren, **BERGARAKO ZEZENTXO** eta **PONIAK.**

19:30

BOLA PREMIXUA,

ARZELUS komertzioak eskainitako garaikurrak.

20:30

AFARIXAK elkartean

Uztailak 15, **ASTELEHENA** auzotarren eguna

12:30

Mezia.

13:00

UMEEN JOLASAK,

15:00

BAZKARIXA.

Egun guztian zehar, **SEBASTIAN LIZASO** eta **ANDONI EGAÑA** bertsolarixak.

Bazkal ondoren, dantzaldixa **LAJA II** eta **LUTXURDIXOKIN.**

19:00

EMAKUME BOLO TXAPELKETIA.

20:30

AFARIXA.

Afai ondorenia, erromerixian jarraipena eta **JAIXEN BUKAERIA.**



Antolatzen eta laguntzen



San Andrese elkartea



Soraluzeko Udala

Oharra: San Andrese elkartea ez da gerta batzuekin zehazkien kargu eragile.

Babesleak:

AITOR PELEA
www.aitorpelea.com

ELECTRIZIDAD MUELVEA S.L.
www.muelvea.com

LAN
www.lan.com

LABE
www.labe.com

JUAN MARI
www.juanmari.com

ARITZ LASKURAIN
www.aritzlaskurain.com

MIKEL PUNZALANTA
www.mikelpunzalanta.com

SOKEA EUREFORMAK
www.sokea.com

TXURITU GASTEGIA
www.txuritu.com

WIDAL
www.widal.com

WIDAL
www.widal.com

Mintzabel etxategia
www.mintzabel.com

SOLER
www.soler.com

laibi ELECTRICIDAD
www.laibi.com

IXOTU
www.ixotu.com

Batzoki
www.batzoki.com

FOGASLER
www.fogasler.com

Iñaki ETXABE
www.ietxabekidua.com